**ERABILERA PUBLIKOKO EREMUETAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.**

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honek xede hau du: aire zabaleko erabilera publikoko espazioetan, jarduera ekonomikoek, jarduerari lotutako elementuez jabaria edozein dela ere, erabilera publikoa duten lurzoruak okupatu ahal izateko araudi tekniko eta juridikoa ematea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ordenantza hau udaleko erabilera publikoko aire zabaleko espazio guztiei —titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak— aplikatzen zaie (kaleak, plazak, etxadien arteko patioak, arkupeak, oinezkoen espazio libreak, berdeguneak...).
Espazio bat erabilera publikokotzat hartuko da espazio horrek izatez duen erabilera kontuan hartuta nahiz indarrean dagoen hiri-plangintzaren zehaztapenak aplikatuta. Ordenantza honen barruan kontuan hartuko dira jabaria edozein dela ere erabilera publikoa duten espazioetan jartzen diren terrazak eta erakuslekuak.

Halaber, ordenantza honen xedetik kanpo daude baldintza hauek betetzen dituzten instalazioak:

a) Jabari publikoko ondasunetan egonik, udaleko kontzesio administratibo baten babesean aurrera eramaten diren jarduera osagarriak.

b) Udaleko organo eskudunak ezarritako egutegiaren arabera, herrian ospatzen diren jaietan egiten diren aldian behingo jarduerak.

3. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Ordenantza honako arau hauek emandako ahalmenen arabera egin da: Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 84 bis 1.a) artikuluek; apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak; azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak; abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren

**ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN EN ZONAS DE USO PÚBLICO DE TERRAZAS, EXPOSITORES DE PRODUCTOS A LA VENTA Y OTROS ELEMENTOS AUXILIARES.**

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto de la ordenanza.

La presente ordenanza tiene por objeto dictar la normativa técnica y jurídica para la ocupación por actividades económicas de suelos de uso público, cualquiera que sea su propiedad, mediante elementos vinculados a la actividad en espacios al aire libre de uso público.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

La presente ordenanza es de aplicación a todos los espacios al aire libre del municipio, sean calles, plazas, patios de manzana, soportales, espacios libres peatonales, zonas verdes que sean de uso público, bien de titularidad pública como privada.
La condición de uso público de un espacio vendrá determinada en función tanto del uso que tiene de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento urbanístico vigente. Se considerarán dentro de esta ordenanza las terrazas y expositores que se instalen en espacios de uso público, cualquiera que sea su dominio.

Quedan fuera de la presente ordenanza aquellas instalaciones que se encuentren en alguno de los siguientes supuestos:

a) Cuando sean complementarias de actividades desarrolladas al amparo de una concesión administrativa municipal, por estar enclavadas en bienes de dominio público.

b) Las actividades temporales ejercidas con motivo de actos festivos que se celebren en la localidad, dentro del calendario establecido por el órgano municipal competente.

Artículo 3. Normativa aplicable.

La presente ordenanza se elabora de conformidad con las facultades conferidas por los artículos 49 y 84 bis 1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local; la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi; la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas; el Real Decreto 1373/2009, de 28 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las

3ko 33/2003 Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 77. artikuluak.

Orokorrean, bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu osagarri batzuk jartzeko araudia aurrez aipatu ditugun xedapenetan ezarritakoari egokituko zaio.

Horrez gain, arloan dauden eta aplikagarri zaizkion xedapenak ere kontuan izan beharko dira, besteak beste, indarrean den hirigintza plangintza, irisgarritasun legedia, hots-kutsadurari buruzko legedia, etab.

**4. artikulua. Baimenen izaera.**

Bide publikoaren okupazioak eta ustiapenak ohiko erabilera berezien kategoria juridikoan sailkatuta daude; jabetza-eskubiderik gabe ematen dira eta beste pertsonen eskubideak erabiltzeari ezertan eragotzi gabe. Aurrez, udalaren baimena behar da, eta hori ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da.

Udal lizentziaren eskaera egin ahalko dute, soilik, ostalaritzako edo saltoki establezimenduen jarduera lizentziaren gaineko titulartasuna dutenek, baldin eta establezimendu horien funtzionamendua eta jarduera dagokien arau urbanistiko eta sektorialen arabera eramaten badira aurrera.

Terrazen eta erakuslekuen lizentziak nahitaez uztartuta geratuko dira dagokien ostalaritzako edo saltokietako establezimenduen lizentziekin, eta, beraz, ezin izango dira eskualdatu establezimendu horien jardueretatik bereizita. Establezimenduaren jardueraren titularra aldatzen bada, titular berriak terraza-lizentzia eskualdatzeko eskatu beharko du, gehienez ere hilabeteko epean, jardueraren titularra aldatzen denetik zenbatzen hasita. Aurreko titularrari emandako terraza-lizentziaren aldia ezin izango da luzatu, eta titular berriak eskatu beharko du aldi berrirako lizentzia berria.

Gainera, prekarioko lagapenak izaten dira eta atzera bota daitezke interes publikoko arrazoiengatik, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe. Partikularrak ez du baimena eskuratzea bermatzen dion eskubiderik, hortaz, kasu horietan baimena ematea hautazkoa da; edonola ere, hartutako ebazpena arrazoitu beharra dago.

Zoru publikoa okupatzeko baimendutako aldiak aldatu egin daitezke hauen ondorioz: turismoarekin, merkataritzarekin edo jaiekin lotutako jarduerak, obrak edo ekitaldi publikoak, udalak antolatutakoak. Halaber, aldi horiek aldatu egin daitezke beste interesdun

Administraciones Públicas, y el artículo 77 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Con carácter general, la regulación de la instalación en la vía pública de terrazas, expositores de productos a la venta y otros elementos auxiliares se ajustará a las previsiones establecidas en las disposiciones citadas anteriormente.

Además, deberán tenerse en cuenta las disposiciones existentes en la materia que le sean de aplicación, tales como planeamiento urbanístico vigente, legislación de accesibilidad, legislación sobre contaminación acústica, etc.

**Artículo 4. Carácter de las autorizaciones.**

Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública se clasifican en la categoría jurídica de usos característicos que se otorgan sin derecho de propiedad y sin perjuicio del ejercicio de los derechos de otras personas. Requiere autorización previa municipal, que se otorgará conforme a lo previsto en esta ordenanza.

Únicamente podrán solicitar el otorgamiento de licencia municipal quienes ostenten la titularidad sobre la licencia de actividad de los establecimientos de hostelería o comercios cuyo funcionamiento y actividad se desarrolle de acuerdo con las normas urbanísticas y sectoriales correspondientes.

Las licencias de terrazas y expositores quedarán necesariamente vinculadas a las licencias de los establecimientos de hostelería o comercios a los que se encuentren adscritos, por lo que no podrán transmitirse independientemente de las actividades de estos establecimientos. En caso de cambio de titularidad de la actividad del establecimiento, la nueva persona titular deberá solicitar la transmisión de la licencia de terraza en el plazo máximo de un mes desde el cambio de titular de la actividad. El período de licencia de terraza concedido a la anterior titular no será prorrogable, y el nuevo o la nueva titular deberá solicitar la nueva licencia por el nuevo periodo.

Además, se trata de cesiones en precario que pueden ser rechazadas por razones de interés público, sin derecho a indemnización. El o la particular no tiene derecho a que se conceda la autorización, por lo que su concesión es potestativa, y deberá motivarse, en todo caso, la resolución adoptada.

Los periodos autorizados para la ocupación del suelo público podrán ser modificados como consecuencia de actividades turísticas, comerciales o festivas, obras o actos públicos organizados por el ayuntamiento. Asimismo, estos periodos podrán ser objeto de modificación cuando se trate

batzuek jarduerak egin behar badituzte, eta jarduera horiek administrazio honek baimendu beharreko eskubideekin lotuta daudenean.

Lizentziak urte baterako edo denboraldi baterako emango dira, egin den eskariaren arabera, eta erregelamendu honetako 8. artikuluak xedatzen duena kontuan izanik.

Baimenen titularren arrisku eta menturan eramango da aurrera jarduera. Debekatuta dago ordenantza honetan zehazten ez diren altzari edo elementuak jartzea.

Baimendutako espazioaren gehieneko okupazioa zehaztuz emango dira lizentziak, mahai-moduluak eta utzi beharreko pasabideak kontuan hartuta. Kasu bakoitzean, titularrak erabakiko du zenbat mahai jarriko dituen eta zenbat denborarako, eta dagokion tasa ordaindu beharko du, betiere erregelamendu honen 10. artikuluan zehazturiko muga eta baldintzekin.

**5. artikulua. Okupa daitezkeen espazioen ezaugarriak.**

Zenbait espazio publiko mota bereizten dira, erabileraren eta eremuaren arabera:
I. mota. Errepideko zirkulazioa duten kaleetako espaloiak.
II. mota. Oinezkoen kaleak.
III. mota. Plazak eta oinezkoen beste espazio batzuk.
IV. mota. Aterpeak.
V. mota. Baimen bereziko espazioak.

**II. TITULUA**

**ZEHAZTAPENAK**

**II.I. ATALA. DEFINIZIOAK.**

**6. artikulua. Ordenantzak arautzen dituen elementuen definizioak.**

Ordenantzak espazio publikoan kokatu daitezkeen hurrengo elementuak arautzen ditu: terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak, eta elementu osagarriak.
Terraza esaten diogu jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiazko komunikazioa edo habilitazio-titulua duen eta publikoari irekita dagoen ostalaritza-jarduera baten osagarri gisa balio duen mahai, aulki, toldo eta behin-behineko instalazio mugikorren multzoari (batera edo banaka, eta modu iraunkorrean).
Salgai dauden produktuen erakuslekua esaten diogu jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiazko komunikazioa edo habilitazio-titulua duen jarduera baten osagarri gisa

de la realización de actuaciones por parte de otras personas interesadas que estén relacionadas con derechos cuya autorización corresponde a esta administración.

Las licencias se concederán por períodos anuales o temporales, en función de la solicitud formulada y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 8. º de este reglamento.

La actividad se desarrollará a riesgo y ventura de las personas titulares de las autorizaciones. Queda prohibida la instalación de mobiliario o elementos diferentes a los definidos en esta ordenanza.

Las licencias se otorgarán para una ocupación máxima del espacio autorizado, en función de los veladores y de las zonas de paso necesarios. La titular decidirá en cada caso el número de mesas a colocar y el periodo de tiempo de colocación y abonará la tasa correspondiente, con las limitaciones y condiciones establecidas en el artículo 10. º de este reglamento.

**Artículo 5. Características de los espacios ocupables**.

Se distinguen diferentes tipos de espacios públicos en función de su uso y ámbito:
Tipo I. Aceras en calles de tráfico rodado.
Tipo II. Calles peatonales.
Tipo III. Plazas y otros espacios peatonales.
Tipo IV. Porches.
Tipo V. Espacios de autorización especial.

**TITULO II**

**DETERMINACIONES**

**SECCIÓN II.I. DEFINICIONES.**

**Artículo 6. Definiciones de los elementos regulados por la ordenanza**.

La ordenanza regula los siguientes elementos que pueden ubicarse en el espacio público: terrazas, expositores de productos a la venta y elementos auxiliares.

Se entiende por terraza el conjunto de mesas, sillas, toldos e instalaciones móviles provisionales que sirven de complemento, de forma conjunta o individual, y con carácter permanente, a una actividad hostelera con licencia de apertura, comunicación previa o título habilitante para el ejercicio de la actividad de acuerdo con la normativa vigente y que está abierta al público.
Se entiende por expositor de productos a la venta el elemento móvil provisional que se coloca en el exterior de un comercio como complemento de una actividad con licencia de apertura, comunicación previa o título

denda baten kanpoan jartzen den behin-behineko elementu mugikorrari, produktu jakin bat nabarmentzea eta bezeroari eskura jartzea helburu duenari.
Elementu osagarritzat hartzen da terraza edo salgai dauden produktuen erakuslekua ez den eta hilabete baino gehiagoko denbora-tartean ostalaritza- edo merkataritza-saltoki baten kanpoaldean jartzen den beste edozein elementu, jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiazko komunikazioa edo habilitazio-titulua duen jarduera baten osagarri gisa. Definizio horren barruan sartuko lirateke dekorazio-elementuak, elementu ludikoak, jolasarekin lotutakoak...

habilitante para el ejercicio de la actividad de acuerdo con la normativa vigente, con el fin de destacar y poner a disposición de la clientela un determinado producto.
Se entiende por elemento auxiliar cualquier otro elemento que no sea terraza o expositor de productos a la venta y que se instale en el exterior de un establecimiento hostelero o comercial en un periodo superior a un mes, como complemento de una actividad con licencia de apertura, comunicación previa o título habilitante para el ejercicio de la actividad conforme a la normativa vigente. Dentro de esta definición se incluirían elementos decorativos, lúdicos, recreativos...

### 7. artikulua. Elementuen definizioak.

Terrazetan baimendutako elementuen definizioak:
1. Moduluak:
Mahai eta aulkiez osatutako multzoak dira, ezaugarri eta tamaina zehatzekoak. Bi modulu mota ezartzen dira eta horrez gainera modulu bereziak aurkezteko aukera eskaintzen da. Moduluen arteko gutxieneko distantzia ere errespetatu beharko da terraza barnetik pausua bermatzeko.
2. Mahai irisgarriak:
Irisgarritasun baldintzak betetzen dituen mahai eta aulki multzoa. Bost mahai baino gehiago dituzten terrazak gutxienez bat izan beharko dute.
3. Albo-babesak (manparak edo loreontziak):
Horiek jartzeko berariazko lizentzia eskatu behar da.
Segurtasuna bermatzeko beharrezko direnean derrigorrezkoak izango dira.
Haizetik babesteko balio dezakete edo naturaren presentzia areagotzeko.
Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira.
4. Eguzkitakoak:
Eguzkitatik babesteko elementu mugikorrak dira. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira. Ez da behar berariazko lizentziarik horiek jartzeko. Terraza eremuaren barruan egon beharko dira.
5. Toldoak:
Zoladurara finkatu ezin diren egitura autosostengatzaile mugikorrak dira, edo fatxadara soilik lotuta zabaldu edo jasotzen diren estalki egiturak dira. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira. Horiek jartzeko berariazko lizentzia eskatu behar da.
6. Garbitasunerako elementuak:
Hautsontziak beharrezkoak izango dira.
7. Produktuen erakuslekuak:
Merkataritza-establezimendu batean saltzen diren produktuak erakusteko erabiltzen diren altzariak.
8. Informazio modulua:
Informaziorako modulua, ostalaritza establezimenduak jakitera eman nahi duen informazioa zabaltzeko panela; arbel motakoa edo paperean informazioa itsatsia duena izan daiteke. Terrazak okupatzen duen eremuaren

### Artículo 7. Definiciones de los elementos.

Definiciones de los elementos autorizados en terrazas:
1. Veladores:
Son conjuntos de mesas y sillas de características y dimensiones concretas. Se establecen dos tipos de veladores y además se ofrece la posibilidad de presentar veladores especiales. Deberá respetarse, además, la distancia mínima entre veladores para garantizar el paso por el interior de la terraza.
2. Mesas accesibles:
Conjunto de mesas y sillas que cumplen las condiciones de accesibilidad. Las terrazas con más de cinco mesas deberán disponer al menos de una.
3. Protecciones laterales (mamparas o macetas):
Su instalación requiere licencia expresa.
Serán obligatorias cuando sean necesarias para garantizar la seguridad.
Pueden servir para protegerse del viento o aumentar la presencia de la naturaleza.
Se ubicarán dentro de la zona ocupada por la terraza.
4. Sombrillas:
Son elementos móviles de protección solar. Su emplazamiento se limitará al interior del espacio ocupado por la terraza. No precisarán solicitud de licencia expresa para su instalación. Deberán estar dentro de la zona de la terraza.
5. Toldos:
Son estructuras autoportantes móviles que no se pueden fijar al pavimento o estructuras de cubierta que se extienden o levantan unidas exclusivamente a la fachada. Se ubicarán dentro de la zona ocupada por la terraza. Su instalación requerirá licencia expresa.
6. Elementos de limpieza:
Los ceniceros serán necesarios.
7. Expositores de productos:
Mobiliario utilizado para exponer productos que se venden en un establecimiento comercial.
8. Módulo de información:
Módulo de información, panel mediante el que se transmitirá información que el establecimiento hostelero quiere dar a conocer; puede ser de tipo pizarra o con información pegada en papel. Se colocará dentro de la

barruan jarri behar da.

II.II. ATALA. DENBORALDIAK ETA ORDUTEGIAK.

8. artikulua. Iraupena, denboraldia eta indarraldia.

1. Terrazak jartzeko lizentziek bi iraupen izan ditzakete, eta lizentzia beraren barruan konbinatu egin daitezke iraupena eta ezaugarriak (mahai kopurua...):

a) Urtebeterako.
b) Aldi baterako: udako denboraldia (maiatzaren 1etik urriaren 31ra).
2. Emandako baimena automatikoki berrituko da datozen ekitaldietarako baldintza berberekin eta epe berdinerako, baldin eta aurretik ez bazaio Hernaniko Udalari baja emateko idatziz eskatu.
Luzatutako lizentzia eraginkorra izan dadin eta terrazen, salmentarako erakuslekuen eta elementu osagarrien erabilera gaitu dezan, lizentziaren titularrak aurreko baimenari dagokion tasa ordaindua izan beharko du urte horretako ekitaldian bide publikoa erabiltzeagatik. Aurreko baimenaren tasa ordaindu gabe baldin badago ez da lizentzia luzatuko.

9. artikulua. Garaiak, ordutegiak eta mugak.

9.1. Ordutegi orokorraz gain, aparteko bi garai bereizten dira: terrazak jartzeko aukera mugatu edo ixteko ordutegi ezberdinak ezartzen dituztenak:

Ordutegi zabaleko garaia: maiatzaren 1etik urriaren 31ra.

9.2. Terrazak kanpoan jarrita egon daitezkeen ordutegien mugak, establezimenduen ordutegia edozein delarik ere, honako hauek dira:

a) Ordutegi orokorra:
— Terrazak jartzeko ordutegia:
Astegunetan: 8:00etan.
Asteburuan: 9:00etan.
— Terrazak kentzeko ordutegia:
Igandetik ostegunera: 23:00ak arte.
Ostiral, larunbata eta jai-bezperatan: 00:00ak arte.

b) Ordutegi zabaleko garaia (maiatzaren 1etik urriaren 31ra):
— Terrazak jartzeko ordutegia:
Astegunetan: 8:00etan.
Asteburuan: 9:00etan.
— Terrazak kentzeko ordutegia:
Igandetik ostegunera: 23:30ak arte.
Ostiral, larunbata eta jai-bezperatan: 00:30ak arte.

zona ocupada por la terraza.

SECCIÓN II. II. TEMPORADAS Y HORARIOS.

Artículo 8. Duración, temporada y vigencia.

1. Las licencias para la instalación de terrazas podrán tener dos duraciones, y podrán combinarse dentro de una misma licencia la duración y las características (número de mesas...):
a) Anual.
b) Temporal: temporada de verano (del 1 de mayo al 31 de octubre).
2. La licencia concedida se renovará automáticamente en los mismos términos y por el mismo plazo para los ejercicios siguientes, salvo que previamente se haya solicitado por escrito la baja al Ayuntamiento de Hernani.
Para que la licencia prorrogada sea efectiva y habilite el uso de terrazas, expositores de venta y elementos auxiliares, la persona titular de la licencia deberá haber abonado la tasa correspondiente a la autorización por utilización de la vía pública del ejercicio en curso. Si la tasa de la licencia anterior no está abonada, no se prorrogará la licencia.

Artículo 9. Temporadas, horarios y limitaciones.

9.1. Además del horario general, se distinguen dos temporadas extraordinarias, en las que se limita la posibilidad de instalación de terrazas o se diferencian los horarios de cierre:
Temporada de horario amplio: del 1 de mayo al 31 de octubre.

9.2. Las limitaciones horarias para la instalación de terrazas en el exterior, con independencia del horario de los establecimientos, serán las siguientes:

a) Horario general:
— Horario de instalación de terrazas:
Entre semana: a las 8:00 horas.
Fin de semana: a las a las 9:00 horas.
— Horario de retirada de terrazas:
De domingo a jueves: hasta las 23:00 horas.
Viernes, sábado y vísperas de festivo: hasta las 00:00 horas.

b) Temporada de horario amplio (del 1 de mayo al 31 de octubre):
— Horario de instalación de terrazas:
Entre semana: a las 8:00 horas.
Fin de semana: a las 9:00 horas.
— Horario de retirada de terrazas:
De domingo a jueves: hasta las 23:30 horas.
Viernes, sábado y vísperas de festivo: hasta las 00:30 horas.

9.3 Bestelako mugak:

a) Terrazak hasierako ordutegiarekin batera jarri ahal izango dira, alegia, ezin izango dira aurretik ipintzen hasi.

b) Terrazak kentzeko, terrazen ordutegia amaitu eta hogei minututan gehienez jasota egon beharko dira (20 minututan).

c) Terrazako ordutegia amaitzean terrazako elementuak lokalaren barrura sartu beharko dira edo bide publikoko baimendutako espazio batean pilatu, oinezkoen ibilbidearen kanpo egon beharko dena.

d) Terrazetako edozein elementu jarri, bildu eta mugitzerako momentuan zaratarik gabe egiteko neurriak hartu beharko dira. Materialak garraiatzeko modu bezala gurpildun karroak erabili daitezke, beti baldin eta gurpilek soinua ateratzen ez badute. Terrazako altzariak lotzeko kateak erabiltzen badira, plastikoko edo bestelako materialez forratuta egon beharko dute, zarata egin ez dezaten.

9.4. Merkataritza-establezimenduetako erakuslekuak (janari dendak, okindegiak, gozotegiak...) eta elementu osagarriak jartzeko ordutegia merkataritza-establezimenduak zabalik mantentzen den ordutegi bera izango da. Nolanahi ere, ezin izango dira 08:00ak baino lehen jarri, eta 20:00ak baino lehen kendu beharko dira.
Merkataritza-establezimenduren batek terraza jartzeko lizentzia badu, mahai eta aulki horiek jarri edo kentzeko baldintzak gainerako ostalaritza-establezimenduen berdinak izango dira eta ezin izango dira jarrita eduki establezimenduak bete beharreko gehieneko ordutegitik kanpo.

9.5. Eskumena duen organoak terraza kentzeko ordutegia aldatu dezake salbuespenez, bai udalerri osoan, bai zati batean, herriko jaiak edota garrantzi bereziko egunak direlako, edo bestelako egoeraren baten inguruabarrak direla-eta.

9.6. Oinezkoen kaleetan eta oinezkoak zein ibilgailuak ibil daitezkeen kaleetan, kasuan kasu aztertuko da terraza zamalanen ordutegiaren barruan jarri ahal izatea. Terrazak zamalanen jariotasuna oztopatuko balu, neurriak hartuko dira.

9.7. Udalak antolatutako edozein ekitaldi egiteko erabiltzen diren espazio publikoei dagokienez, terrazak jartzeko ordutegia ez da hasiko udal-zerbitzuek jasotzen

9.3 Otras limitaciones:

a) Las terrazas podrán instalarse coincidiendo con el horario de inicio, es decir, no podrán comenzar a instalarse con anterioridad.

b) La retirada de terrazas deberá realizarse en un tiempo máximo de veinte minutos desde la finalización del horario de las terrazas (20 minutos).

c) Finalizado el horario de la terraza, los elementos de la misma deberán introducirse en el interior del local o apilarse en un espacio autorizado de la vía pública, que deberá estar fuera del itinerario peatonal.

d) Deberán adoptarse medidas para evitar el ruido en el momento de la colocación, almacenamiento y movimiento de cualquier elemento de las terrazas. Como medio para trasladar los materiales se pueden utilizar carros con ruedas, siempre que estas no hagan ruido. El caso de que se utilicen cadenas para enganchar el mobiliario de la terraza, estas deberán estar forradas con plástico u otros materiales para evitar los ruidos.

9.4. El horario de instalación de expositores (tiendas de alimentación, panaderías, pastelerías...) y elementos auxiliares en los establecimientos comerciales coincidirá con el de apertura del establecimiento. En todo caso, no podrán colocarse antes de las 08:00 horas y deberán retirarse antes de las 20:00 horas.

En caso de que algún establecimiento comercial disponga de licencia de instalación de terraza, las condiciones para su instalación o retirada serán las mismas que las del resto de establecimientos de hostelería y no podrán estar instaladas fuera del horario máximo que deba cumplir el establecimiento.

9.5. Excepcionalmente, el órgano competente podrá modificar el horario de retirada de la terraza, en todo o parte del término municipal, con motivo de las fiestas patronales, días de especial relevancia u otras circunstancias.

9.6. En las calles peatonales y en aquellas de circulación peatonal y de vehículos, se estudiará en cada caso la posibilidad de instalar terrazas dentro del horario de carga y descarga. Si la terraza obstaculizara la fluidez de las operaciones de carga y descarga, se adoptarán las medidas oportunas.

9.7. En el caso de espacios públicos destinados a la celebración de cualquier evento organizado por el ayuntamiento, el horario de instalación de terrazas no

eta garbitzen amaitu arte.

comenzará hasta que no haya finalizado la recogida y limpieza de la zona por parte de los servicios municipales.

9.8. Terraza erabiltzearekin lotutako molestiak direla eta, bizilagunen edo beste kaltetu batzuen kexak jasotzen badira, eskumena duen organoak, behin egiaztapenak eginda eta araua hausten duela egiaztatzen bada, ireki edo ixteko ordutegia muga dezake aldi baterako edo behin betiko, eta, hala dagokionez, atzera bota dezake lizentzia; kasu horretan, kendu egin beharko litzateke instalazioa.

9.8. En el caso de que por molestias relacionadas con el uso de la terraza se reciban quejas del vecindario u otras personas afectadas, el órgano competente, una vez realizadas las comprobaciones pertinentes y constatada la existencia de infracción, podrá limitar temporal o definitivamente el horario de apertura o cierre y, en su caso, revocar la licencia, en cuyo caso debería procederse a la retirada de la instalación.

## III. TITULUA

### III.I. ATALA. INSTALAZIOEN BALDINTZAK.

#### 10. artikulua. Baldintza orokorrak.

a) Establezimenduko fatxada guztietan jarri ahal izango dira mahaiak, edo fatxada proiektatuta geratzen den espazioan. Lokal baten bi fatxadak angelu zuzenean baldin badaude, terraza ezin izango da jarraitua izan.

b) Terrazaren azalerak ezingo du gainditu establezimenduaren fatxadaren luzera, espazio-beharrengatik alboko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, alboko establezimenduek uko egin behar izango diote establezimenduaren aurrean dagoen espazioa erabiltzeko eskubideari, uko egite hori partziala izan daiteke. Uko egite hori bat etorri beharko du espazio hori erabiltzera lagatzen zaion establezimenduaren terraza-lizentziaren indarraldiarekin.

c) Oro har, terrazaren elementurik gertukoena 15 m gehienez aldenduta egongo da establezimenduaren fatxadaren edozein puntutatik, bertatik haren ikuspegia izan badaiteke, baldin eta segurtasun arrazoiak direla-eta terraza tarte horretan ezartzea desegokia ez bada.

d) Elkarren alboz alboko establezimenduetan terrazak ezartzekotan, lerrokatuta ezarri beharko dira, oinezkoen joan-etorriak zuzenak izan daitezen eta sigi-sagan ibili behar izan ez dezaten.

e) Inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

f) Terraza barruan mugitzeko erraztasuna eskaini beharko da eta horretarako 2.1 eranskinean grafikoki adierazten diren distantziak errespetatu beharko dira:

- Igarobidearen bi aldetara eserlekuak badaude 1,40 m-koa izan beharko du mahaitik mahairako tarteak.

## TÍTULO III

### SECCIÓN III.I. CONDICIONES DE LAS INSTALACIONES.

#### Artículo 10. Condiciones generales.

a) Se podrán instalar mesas en todas las fachadas del establecimiento, o en el espacio en que la fachada quede proyectada. Cuando las dos fachadas de un local estén en ángulo recto, la terraza no podrá ser continua.

b) La superficie de la terraza no podrá superar la longitud de fachada del establecimiento, salvo que por necesidades de espacio se solicite la ocupación de fachadas laterales. En este caso, los establecimientos colindantes deberán renunciar al derecho de uso del espacio existente frente al establecimiento, y esta renuncia podrá ser parcial. La renuncia deberá coincidir con el periodo de vigencia de la licencia de terraza del establecimiento en el que se cede el uso de dicho espacio.

c) Con carácter general, el elemento más próximo de la terraza deberá estar separado un máximo de 15 m de cualquier punto de la fachada del establecimiento, siempre que pueda ser visto desde la misma, salvo que por motivos de seguridad la instalación de la terraza en ese tramo resulte inadecuada.

d) La ubicación de varias terrazas en establecimientos colindantes deberá guardar una linealidad en su conjunto para que los tránsitos peatonales sean rectos, y evitar recorridos en zigzag.

e) Se dejará libre una circunferencia de 3 m frente al acceso a las viviendas y locales colindantes. Esta circunferencia deberá quedar delante de la entrada del portal o del establecimiento, en el eje de la misma.

f) Se deberá facilitar la movilidad dentro de la terraza respetando las distancias que gráficamente se indican en el anexo 2.1:

- Si hay asientos a ambos lados del paso, la distancia de mesa a mesa será de 1,40 m.
- Si el asiento está situado a un lado del paso, la

- Igarobidearen alde bakarrean badago eserlekua 1,10 m-koa izan beharko da mahaitik mahairako tartea.
- Igarobidearen aldeetan eserlekurik ez badago 0,80 m-koa izan beharko da mahaitik mahairako tartea.

distancia de mesa a mesa será de 1,10 m.
- Si no hay asientos en los lados del paso, la distancia de mesa a mesa será de 0,80 m.

g) Terraza-lizentziaren indarraldi epea amaitu ondoren, elementu guztiak bide publikotik kendu beharko dira.

g) Una vez finalizado el plazo de vigencia de la licencia de terraza, todos los elementos deberán ser retirados de la vía pública.

h) Terrazako altzari guztiak lokalaren barruan gorde beharko dira. Toki falta dela-eta barruan gordetzerik ez duten eta hori behar den moduan justifikatzen duten establezimenduek baimena eskatu beharko dute horiek bide publikoan biltzeko; eskaera egitean haiek proposatu beharko dute altzari horiek biltzeko okupatuko den azalera zein izango den, eta udalak onartu edo beste kokapen bat proposatuko du. Oinezkoen ibilbidearen kanpo egon beharko dira eta mugikortasun-bastoiekin detektatzeko errazak izan beharko dira.

h) Todo el mobiliario de la terraza deberá guardarse en el interior del local. Los establecimientos que, por falta de espacio, no puedan recogerlo en su interior y lo justifiquen debidamente, deberán solicitar autorización para apilarlo en la vía pública. En la solicitud se propondrá la superficie a ocupar, y el ayuntamiento la aceptará, o propondrá una nueva ubicación. Esos muebles deberán permanecer fuera del itinerario peatonal y ser fáciles de detectar con bastones de movilidad.

i) Tasaren zenbatekoa dagokion zerga ordenantzaren arabera erabakiko da.

i) La cuantía de la tasa se determinará de acuerdo con la ordenanza fiscal correspondiente.

j) Fatxadari atxiki beharreko elementuak (hala nola toldoak eta erlaitzak) ezartzeko baimena emateko, hirigintza araudia betetzen den aztertuko da.

j) La autorización de cualquier elemento sujeto a las fachadas como toldos y repisas, se someterá a la regulación urbanística.

k) Ordenantzan ezarritako irizpide eta xedapen teknikoak betez gero, ordenantza honetan arautu gabeko baldintzak eta ezaugarriak dituzten espazioak okupatzeko eskariak ere ebatzi ahal izango dira.

k) Podrán resolverse las solicitudes de ocupación de espacios cuyas condiciones y características no estén reguladas en la presente ordenanza, siempre que se cumplan los criterios y prescripciones técnicas establecidas en la misma.

**11. artikulua. Irisgarritasun eta zirkulazio baldintzak.**

**Artículo 11. Condiciones de accesibilidad y circulación**.

Jabari publikoko eta erabilera publikoko espazioetan terrazak jartzeko, espazio publikoetako irisgarritasunari buruzko arauak eta ordenantza honetako baldintzak bete behar dira.
Irizpide orokor gisa, pasabide libreko zabalera bat ezartzen da oinezkoen zirkulaziorako (2 m) eta beste bat ibilgailuen zirkulaziorako (3 m).

La instalación de terrazas en espacios de dominio público y uso público se ajustará a la normativa sobre accesibilidad de los espacios públicos y a las condiciones de esta ordenanza.
Como criterio general se establece una anchura de paso libre para la circulación peatonal (2 m) y otra para la circulación rodada (3 m).

Zabalera libre hori kalkulatzeko orduan, berau mugatzen duten oztopotzat hartuko dira hiri-altzariak, jardinerak, farolak, markesinak, posteak, hesiak eta espaloietan edo horien proiekzio bertikalean egon litekeen beste edozein elementu, alboko beste terraza batzuek hartzen duten espazioa barne.

A los efectos del cálculo de esta anchura libre, se considerarán obstáculos que la limitan el mobiliario urbano, jardineras, farolas, marquesinas, postes, vallas y cualquier otro elemento que pudiera existir en las aceras o en su proyección vertical, incluyendo el espacio ocupado por otras terrazas colindantes.

Eskatzen den pasabide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen edo ibilgailuen trafikoarekin lotutako arrazoi justifikatuengatik eta udal-zerbitzuen iritzi arrazoituagatik.

El paso libre exigido podrá ser ampliado por razones justificadas relacionadas con el tráfico peatonal o rodado y a juicio motivado de los servicios municipales.

Era berean, 5 mahai baino gehiago dituzten terrazak gutxienez mahai irisgarri bat izan beharko dute. Mahai honen baldintzak 15. artikuluan eta II.I. eranskinean

Asimismo, las terrazas con más de 5 mesas deberán tener al menos una mesa accesible. Las condiciones de esta mesa se detallan en el artículo 15 y en el anexo II.I.

xehatzen dira.

— Oinezkoen zirkulazio baldintzak.

Terrazen instalazioek oztoporik gabeko pasabide bat errespetatu behar dute, irisgarritasunari buruzko arauetan ezartzen dena (2 m-ko pasabidea, gutxienez). Hala, bermatu beharko dute irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak betetzen direla urbanizatutako espazio publikoetara sartzeko eta eremu horiek erabiltzeko orduan; eta ezingo dute galarazi oinezkoentzako ibilbide irisgarrien baldintza orokorrak betetzea.
Irisgarritasunari buruzko arauetan ezarritako betekizun guztiak betetzea posible ez den hiri eremu finkatuetan soluzio alternatiboak baimen daitezke, ahalik eta irisgarritasun handiena bilatuz eta irisgarritasuna ez okerragotzeareN irizpideari jarraiki. Terraza jartzeko lizentzian arrazoitu eta baimendu behar dira soluzio horiek.
Kasu guztietan hurrengo baldintza hauek bete beharko dira:
a) Terrazako elementu bakar batek ere ezin du baimendutako eremua gainditu, ezta aurrez eskatutako oztoporik gabeko oinezkoen pasabidea inbaditu ere.
b) Oinezkoen erabilerako eremuetan dauden tabernen terrazek eta antzeko instalazioek hartzen duten gainazalak hautemateko modukoa izan behar du, eta saihestu egin behar dira ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat arrisku edo traba bat eragin dezaketen elementu edo egoerak. Hala, terrazek eta antzeko instalazioek ezin diete kalterik eragin oinezkoentzako ibilbide irisgarriei, eta ezin dituzte egoera baztertzaileak sortu espazio publiko urbanizatuetara sartu eta horiek erabiltzeko. Ondorio horietarako, aipatutako baldintzak bermatzeko beharrezkoa balitz, terrazaren perimetroa babes-elementuen edo mugikortasun-bastoiez atzemateko errazak izan beharko diren haize-babesen bidez mugatzeko betebeharra ezar dezakete terrazak jartzeko lizentziek.

— Ibilgailuen zirkulaziorako baldintzak.

Terrazen instalazioak oztoporik gabeko pasabide bat errespetatu behar du ibilgailuen, larrialdi-zerbitzuen eta beste zerbitzu batzuen irisgarritasuna bermatzeko (3 m-ko pasabidea, gutxienez). Halaber, eraikinetako atarietarako, saltoki publiko edo pribatuetarako eta eraikinen larrialdi-irteeretarako sarbideak errespetatu behar dira, eta ibilgailuak sartzeko edo irteteko maniobrak egin daitezkeela ziurtatu behar da.

**12. artikulua. Euskararen erabilera sustatzeko neurriak.**

Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak euskaraz idatziko dira: menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen

— Condiciones de circulación peatonal.

Las instalaciones de terrazas deben respetar un paso libre de obstáculos establecido en la normativa de accesibilidad (paso mínimo de 2 m). Así, deberán garantizar el cumplimiento de las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación en el acceso y uso de los espacios públicos urbanizados, y no podrán impedir el cumplimiento de las condiciones generales de los itinerarios peatonales accesibles.

En aquellas áreas urbanas consolidadas en las que no sea posible el cumplimiento de la totalidad de requisitos establecidos en la normativa sobre accesibilidad, se podrán autorizar soluciones alternativas buscando la máxima accesibilidad, y siguiendo el criterio de no empeorar la accesibilidad. Estas soluciones deberán ser motivadas y autorizadas en la licencia para la instalación de la terraza.
En todos los casos deberán cumplirse las siguientes condiciones:
a) Ningún elemento de la terraza puede sobrepasar la zona permitida ni invadir el paso de peatones sin obstáculos previamente exigido.
b) La superficie ocupada por terrazas e instalaciones de bares similares, situadas en zonas de uso peatonal, deberá ser perceptible, y evitar elementos o situaciones que puedan suponer un riesgo o molestia para las personas con discapacidad visual. Así, las instalaciones de terrazas y similares no pueden afectar a los itinerarios peatonales accesibles, ni generar situaciones discriminatorias para el acceso y uso de los espacios públicos urbanizados. A estos efectos, en caso de ser necesario para garantizar dichas condiciones, las licencias para instalación de terrazas podrán imponer la obligación de delimitar el perímetro de la terraza mediante elementos de protección o cortavientos, que deberán ser fáciles de detectar con bastones de movilidad.

— Condiciones para la circulación de vehículos.

La instalación de terrazas debe respetar un paso libre de obstáculos para garantizar la accesibilidad de vehículos, servicios de emergencia y otros servicios (paso mínimo de 3 m). Asimismo, deberán respetarse los accesos a los portales de los edificios, a los comercios públicos o privados y a las salidas de emergencia de los edificios, asegurando la posibilidad de realizar maniobras de entrada o salida de vehículos.

**Artículo 12. Medidas para fomentar el uso del euskera.**

Todos los elementos que se pongan a disposición y a lavista del público en la zona ocupada estarán redactados en euskera: menús, listas de precios, carteles, avisos de

abisuak, arbeletako oharrak… Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabiltzea beharrezkoa bada, euskara nabarmendu beharko da.

Kontuan hartuta Hernaniko egoera soziolinguistikoa (% 62 euskalduna eta % 17 ia euskalduna, Hernani UEMAko kidea da) zerbitzari eta bezeroekiko harremanetan erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara izatea sustatuko da, betiere euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunari buruzko araudian jasotakoari jarraiki.

**13. artikulua. Baldintza espezifikoak.**

13.1 I. motako espazioetarako (ibilgailu zirkulazioa duten kaleetako espaloiak).

a) Kontuan hartuko dira oinezkoen joan-etorrietarako pasabideak, joan-etorrien intentsitatea eta espaloiaren ezaugarriak (hiri-altzaririk badagoen, zuhaitz-txorkoak dauden).

b) Terraza ezartzeko baimena emateko, 2,60 m-tik gorako zabalera izan behar du espaloiak. Edonola ere, okupazioak ezin du gainditu espaloiaren zabaleraren % 50.
2,60 m-tik beherako zabalera duten espaloietan, berriz, baldin eta zuhaitz-txorkorik badago, mahaiak eta aulkiak ezartzeko baimena eman ahal izango da zuhaitz-txorkoen arteko espazioa aprobetxatzeko, betiere, gutxieneko 2 m-ko pasabidea bermatzen bada, edo aurrez zeuden elementuek lagatako pasabidea txikitzen ez bada.
Egituradun toldo mugikorrak ezartzeko baimena emateko, 2,50 m-ko oinezko pasabide bat bermatu behar da uneoro. Egituradun toldoen ezaugarriak 18. artikuluan eta II.III eranskinean xehatzen dira.

c) Orokorrean terraza zintarriaren alboan ezarri behar da fatxadatik hurbileneko eremua oinezkoentzat libre utzita (2 m-ko pasabidea, gutxienez). Segurtasun-arrazoiak direla eta, zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 60 cm-ko tartea utzi behar da lineako aparkaleku baten ondoan badago; eta bateriako aparkaleku baten ondoan badago, 30 cm-koa. Zintarriaren alboan aparkalekurik ez badago eta ibilgailuak pasatzen badira, alboko babesa jarri behar da derrigorrez.
d) Zuhaitz-txorko ilarak edo hiri-altzariak dituzten espaloietan edo etorbideetan, horiekin lerrokatuta egon beharko du terrazak.
e) Bi mahaiko ilarak jarri ahal izango dira gehienez.

f) Terrazak fatxadaren aldean, edo fatxada proiektatuta geratzen den espazioan, pareko eraikinean, jartzen badira, inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da.

ofertas, notas en las pizarras… Si para garantizar la comunicación resulta necesario utilizar otra lengua, se destacará el euskera.

Teniendo en cuenta la situación sociolingüística de Hernani (62 % euskaldun y 17 % cuasi euskaldun, Hernani forma parte de UEMA), se promoverá que la lengua principal utilizada en la relación entre camareros y camareras y clientela sea el euskera, en los términos recogidos en la normativa sobre oficialidad del euskera y del castellano.

**Artículo 13. Requisitos específicos.**

13.1. Espacios tipo I (aceras en calles de circulación rodada).

a) Se tendrán en cuenta los pasos de tránsito peatonal, la intensidad de los desplazamientos y las características de la acera (existencia de mobiliario urbano, existencia de alcorques).

b) Para autorizar la instalación de terraza, la anchura de la acera deberá ser superior a 2,60 m. En cualquier caso, la ocupación no puede superar el 50 % del ancho de la acera.

En aceras de anchura inferior a 2,60 m, podrá autorizarse la instalación de mesas y sillas en caso de existir alcorques, para el aprovechamiento del espacio entre alcorques, siempre que se garantice un paso mínimo de 2 m, o que no se reduzca el paso que dejan los elementos preexistentes.

Para permitir la instalación de toldos móviles con estructura se debe garantizar en todo momento un paso peatonal de 2,50 m. Las características de los toldos con estructura se detallan en el artículo 18 y en el anexo II.III.

c) Con carácter general, la terraza debe disponerse junto al bordillo, dejando libre a peatones la zona más cercana a la fachada (paso mínimo de 2 m). Por razones de seguridad, la distancia mínima entre el bordillo y la terraza debe ser de 60 cm, si está junto a un aparcamiento en línea, y de 30 cm si está junto a un aparcamiento en batería. En caso de no existir aparcamiento junto al bordillo y que pasen vehículos, se colocará obligatoriamente protección lateral.

d) En aceras o avenidas con alcorques o mobiliario urbano, la terraza deberá estar alineada con los mismos.

e) Se instalará un máximo de dos filas de mesas.

f) En el caso de que las terrazas se instalen en el lado de la fachada, o en el que la fachada queda proyectada, en el edificio de enfrente, deberá dejarse libre una circunferencia de 3 m frente al acceso a las viviendas y locales colindantes. Esta circunferencia deberá quedar delante de

Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

la entrada del portal o del establecimiento, en el eje de la misma.

g) Terraza, oinezkoen pasabide baten bukaeratik 2 m aldenduta egon beharko da.

g) La terraza deberá estar separada 2 m del final de un paso de peatones.

h) Udalak soilik onartuko du terraza jartzea ibilgailuak igarotzen diren bide baten beste aldean salbuespen moduan, eta beste aukerarik ez dagoenean. Onartzen den kasuetan, 6 mahai jarri ahalko dira gehienez.

h) El ayuntamiento únicamente permitirá la instalación de terraza al otro lado de una vía por la que transitan vehículos de forma excepcional y cuando no exista otra alternativa. En los casos que se permita, se podrán poner un máximo de 6 mesas.

i) Hiri-altzarietatik gutxienez 1,5 m-ko tartea utzi beharko da.

i) Deberá respetarse una distancia mínima de 1,5 m respecto del mobiliario urbano.

13.2. II motako espazioetarako (oinezkoen kaleak).

13.2. Espacios tipo II (calles peatonales).

a) Zuhaitz-txorko ilarak edo hiri-altzariak dituzten oinezkoen kaleetan, horiekin lerrokatuta egon behar du terrazak.

a) En calles peatonales con hileras de alcorques o mobiliario urbano, la terraza deberá estar alineada con los mismos.

b) Arau orokor gisa, okupazioek 3 m-ko gutxieneko pasabide bat utzi behar dute libre larrialdiko ibilgailuak igarotzeko eta garaje partikularretako sartu-irtenetarako. Espazio libre honetan balkoiak edo fatxadek altueran eduki dezaketen beste edozein irtengune ere kontuan hartu beharko dira.

b) Como norma general, las ocupaciones deben dejar libre un paso mínimo de 3 m para el tránsito de vehículos de emergencia y acceso a garajes particulares. En este espacio libre deberán tenerse en cuenta también los balcones o cualquier otro saliente que puedan tener las fachadas en altura.

c) Terraza ezartzeko baimena emateko, 4 m-tik gorako zabalera izan behar du kaleak. Edonola ere, okupazioak ezin du gainditu kalearen zabaleraren % 50.

Lau metrotik beherako zabalera duten espaloietan, berriz, baldin eta zuhaitz-txorkorik badago, mahaiak eta aulkiak ezartzeko baimena eman ahal izango da, zuhaitz-txorkoen arteko espazioa aprobetxatzeko, betiere gutxieneko 3 m-ko pasabidea bermatzen bada, edo aurrez zeuden elementuek lagatako pasabidea txikitzen ez bada.

c) Para autorizar la instalación de terraza, la anchura de la calle deberá ser superior a 4 m. En cualquier caso, la ocupación no puede superar el 50 % del ancho de la calle.
En aceras de anchura inferior a cuatro metros, podrá autorizarse la instalación de mesas y sillas en caso de existir alcorques, para el aprovechamiento del espacio entre alcorques, siempre que se garantice un paso mínimo de 3 m o no se reduzca el paso que dejan los elementos preexistentes.

d) Kalean parez pare dauden bi terrazek topo egiten badute, eta gutxieneko pasabideak babestu beharra badago, udal-zerbitzuek erabakiko dute horien banaketa, oinezkoen trazatuari oztoporik jarri gabe.

d) En caso de encuentro de dos terrazas enfrentadas en la calle, y siempre que sea necesario proteger los pasos mínimos, la distribución de las mismas se determinará por los servicios municipales, de modo que no se obstaculice el trazado peatonal.

e) Terrazak fatxadaren aldean jartzen badira, inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

e) En el caso de que las terrazas se instalen en el lado de la fachada deberá dejarse libre una circunferencia de 3 m frente al acceso a las viviendas y locales colindantes. Esta circunferencia deberá quedar delante de la entrada del portal o del establecimiento, en el eje de la misma.

f) Bi mahai ilara jarri ahal izango dira gehienez.

f) Se instalará un máximo de 2 filas de mesas.

g) Hiri-altzarietatik gutxienez 1,50 m-ko tartea utzi beharko da.

g) Deberá respetarse una distancia mínima de 1,50 m respecto del mobiliario urbano.

13.3. III. motako espazioetarako (plazak eta oinezkoen beste espazio batzuk).

Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak aztertuko dira kasuan kasuko ezaugarrien arabera eta honako baldintza hauen arabera ebatziko dira:

a) Terrazak fatxadaren aldean jartzen badira, inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

b) Egoteko erabilera eta oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioa bermatuko dira.

c) Udal-ekipamenduak errespetatuko dira, hala nola lorategiak, haurren parkeak eta hiri-altzariak, oro har; gutxienez 1,50 metroko zabalera librea utziko da.

d) Establezimenduaren fatxadaren bat terraza jarri nahi duen plazara edo espazio librera eman beharko du.

e) 4 mahai ilarako terrazak ezarri ahal izango dira.

f) Terrazen gehienezko okupazioa, espazioaren % 25a izango da (udal-ekipamenduak, bideak... kontuan hartu gabe).

